



Bagenekien armak utzi ostean ere borrokan jarraitu beharko genuela

RODRIGO LONDOÑO ETXEBERRI TIMOCHENKO

TESTUA | JON ARTANO IZETA

FARCen historiako hirugarren komandante-burua izan zen, eta FARC alderdiko lehen presidentea da. Juan Manuel Santosen gobernuarekin hastapenetan ziren bake elkarrizketak gidaritza hartu zuenean. Aldi berean koordinatu zituen borroka armatuko eta bake-negoiazioeko estrategiak, eta bost urteren buruan mende erdiko gerra amaitzea lortu zuten Estatuarekin bake akordioa sinatuz. Geroztik Amerikako gerrilla handiena zenak armak utzita darrai borrokan. Gaur bake prozesuaren egoera ez da samurra: Ivan Duquek hauteskundeak irabazi eta akordioak aldatu nahi

dituen eskuin gotorra itzuli da boterera. Konpromiso asko daude bete gabe eta FARCen hainbat buruzagi ezagunek ezkutatzea erabaki dute atxilotuko dituzten beldur. Ziurgabetasun horrek barne zatiketa hotsa ere ekarri du FARCera. Denetan larriena, nolana ere, “gerrillari ohien hilketak dira” Timochenkorentzat. “Ia 90 erail dituzte”. Eta hala ere baikor mintzo da buruzagia, barre txikia egiten du sarri. Noranahi doala ere eupadak, animoak, eta egiten ari direnagatik maitasuna sumatzen duela dio, apurka-apurka Kolonbia aldatuko dutenaren konbentzimendu osoz.

Bi urte joan dira. Eta sinatu zenuten akordiotik gutxi bete du Estatuak. Nazioarteko ordezkariak zer esaten dizute?

Esan baino egin egiten dute. Berebiziko garrantzia du beren lanak. Nazio Batuen Erakundeak, adibidez, konpromisoa erakutsi du. Adi-adi daude. Segurtasun batzordearen erabakietan nabarmen geratu da: Kolonbian beren misioa luzatzea erabaki dute. Gobernuak ezin dio, nahita ere, ezinikusiarrena egin horri, eta *uribismo*-ko sektore erradikalenei galga jarri diete akordioak txiki-txiki egin ez ditzaizen.

Prozesu hau lortu genuen faktore asko batu zirelako, baina bi elementu erabakigarri izan ziren: jarduneko agintari militarren inplikazioa, berekin adostu genuen nola egin behin betiko su-etena eta armen uztea; eta nazioartearen ekarpena. Hasiera-hasieratik, negoziatzioa isilpean generaman garaietan, Kuba eta Norvegia hor aritu ziren laguntzen. Gero babes handiagoa etorri zen, ez ahaztu AEBek ere izan zutela ordezkari bat Habanara aldiro joan-etorrian.

Akordioan sinatutakoa erdizka ari da betetzen estatua, onenean. Nola lortuko duzue horri buelta ematea hauteskundeetan hain emaitza kaxkarrak lortuta eta legezko joko-eremu politikoan hasiberriak izaki?

Hara, gu ez gara inozoak, eta Habanan ere ez ginen inozoak izan. Bagenekien han adostutakoa bete zezaten lortzea oso zaila izango zela. Bagenekien borrokan jarraitu beharko genuela. Eta horretan ari gara. Baina akordioaren bi puntu garrantzitsueni eutsi egin diegu. Eta kosta ahala kosta eutsiko diegu parte-hartze politikoari eta gure segurtasun juridikoari. Batzuk esan eta esan ari ziren (Ivan) Duquek presidentetza lortzen baldin bazuen kendu egingo zi-

gula akordioan jasotako legebiltzarkide ordezkariak. Bada guk lortu egin dugu legebiltzarkide horiek beren eserlekuak hartzea. Gerrillari ohion segurtasun juridikoa da beste giltzarria. Eta horri ere eusten ari gara, bateko eta besteko erasoak geratuz. Bi alderdi horiei eskerrak etorriko da akordioaren gainontzeko puntuen betetzea.

Segurtasun juridikoari eustea lortu duzuela diozu. Ivan Marquez eta berekin batera ezkutatzea erabaki duten beste dozena bat buruzagiek ez dute segurtasun juridiko hori sumatzen.

Hori da beren pertzepzioa, bai. Besteok ordea hemen gaude, tinko, borrokan. Beldurrik ba ote dugun? Jakina! *Uribismoa* etengabe ari da sabotajea, eta Santrich-i egin diotena, hain zuzen ere, gu beldurtzeko prestatutako maniobra bat da. Tira, gure kamarada batzuk beldurtu egin dira. Beldurra errespetatu beharra dago, zer egingo diogu ba? Baina ezkutatzea erabakitzen duenak bidea libre uzten die akordioa txikitu nahi dutenei. Hainbeste ahalegini esker irabazitakoa arriskuan jarritz.

Jesus Santrich FARCen zuzendaritzako kideari bake akordioa izenpetu ostean egindako narkotrafiko delitu bat egotzen dio AEBetako epaile batek, eta preso sartu dute Kolonbiako justiziak bere estradizioaz erabaki bitartean. Salaketa muntaia bat dela diozue. Gisa horretako beste amarrurik sumatu al duzue?

Bai. Ez dut inoiz kontatu baina... Armadako buruzagi baten audioak lortu genituen, DEArekin (AEBetako Drogen Aurkako Agentzia) elkar hartuta ari zen Pablo Catatumbo eta beste burkide batzuen aurkako tranpa prestatzen. Garaiz ohartu eta fiskaltzan salaketa jarri genuen.

Zatiketa arriskurik ba al du FARCEk?

Beti izan gara talde batua, eta elkartuta jarraitu nahi dugu.

Ivan Marquez-ez fido al zara?

Laguna al duzu?

Aspaldidanik ezagutzen dut, gerrilla borroka batzea erabaki zuenetik, 1982 inguruan. Aldi batez elkarrekin egin genuen lan, eta esan daiteke izan dugula adiskidetasun bat. Negoziazio mahaian gure ordezkari-tzaren buru izan zen eta mahaian ez zuen erabaki bakar bat hartu talde osoarekin aurrez eztabaidatu eta adostu gabe.

Orain ordea kongresuan daudeneko eta, zuk bezala, aktibismo politiko publikoa egiten duzuenekiko distantzia hartu du ezkutatzea erabakita. Ez al duzu uste talde osoaren norabidean eragiteko norgehiagoka bat sortu daitekeenik? Zeure ordezkariak beste norbait jartzeko asmoa izan dezakeenik?

Urte asko daramat FARCEko idazkari-tzan eta mota horretako ideiak ez zaizkit buruan sartzen. Neuk ere egiten diot galdere neure buruari: Ivan Marquez zertan ari da? Bere kezka adierazia zuen, baina niri ez zidan abisurik eman alde egin aurretik, ezta zuzendaritzari ere.

Luzaroan izango al zara FARCen buruzagi?

Jendeak nahi duen bitartean. Gerrillan sartu berria nintzela eman zidan lehen aginpidea: bananadi bat garbitzeko sei laguneko taldearen buru jarri ninduten. Gazte-gaztea nintzen. Ordutik ikasi dut esandakoa egiten, gustuko izan ez arren. Ni erizain jarri ninduten, gogoz kontra. Norbaiti injekzio bat jartzea sufrikarioa da niretzat, baina eutsi egin nion beste aukera bat zabaldu zidaten arte. Eta buruzagitza eutsiko diot taldearen borondatea hori den heinean.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Gurutze Santuaren Plaza, 1.
20100 Lezo | Tel.: 943 52 46 50
info@lezo.eus | lezo.eus

ARGIA 100 urte
Mende emankorra
euskal kazetaritza eraikitzen



Zer moduz doakizue kongresuan?

Kostata baina ari gara espazio berriak irekitzen, eta hori da garrantzitsua. Bakearen aldekoak metatuz gero 48 legebiltzarkide inguru ditugu kongresuan (FARCeok hamar dira, 280 guztira). Hori kontuan hartzeko moduko indarra da.

Ivan Duquek nahi al du bake prozesua sustraitzea?

Presidenteak entzun gaitzan behar dugu. Bilera eskatu diogu eta gaur arte ez gaitu hartu, baina itxaropena dut konbentzitu egingo dugula.

Juan Manuel Santos entzutean zer datorkizu gogora?

Bakearen alde apustu egin zuen. Zeharo beldurtuta, hori bai. Santos agintari klaseko kide petoa da, eta prozesu hau ez genuen martxan jartzetik izango agintari klase horrek nahi izan ez balu. Konbentzitu egin genituen; eta konbentzitu egin gintuzten. Elkarlan oso luzea izan zen, eta Santosek beti izan zuen buru gaineen *uribismoak* jarritako Damoklesen ezpata. Mahai bueltan geundenean, beren ezezkoak arrazoitzeko, hamaika aldiz esan ziguten: "Ezin dugu hori onartu; *uribismoak* jota jo eta txikitu egin gaitzake". Ez daukat ahazteko: negoziazioaren hondarrea Santos presidentearen deia jaso nuen Habanan, gauez, oso berandu. Parte-hartze politikoari uko egin geniezaion eskatu zidan, behintzat 2018ko hauteskundeetan lehiatik kanpo gera gintezen nahi zuen. Hori marra gorria zela erantzun nion. Hain borroka luzearen ostean

nola utziko ditugu ba armak eta politikan ez garelako arituko esan? Nola ba, geure iza-tearen muina izaki politika?

Ba al duzu hartu-emanik orain Santosekin?

Komunean ditugun ezagunen bidez dakit bere berri. Badakit Harvarden (AEB) dagoela irakasletzan, eta prozesuaren defentsan diharduela ingurune akademiko horietan.

Zergatik ez ditu Estatuak okupatu zeuek lehen kontrolpean zenituzten eskualdeak?

Galdera ona duzu hori haiei egiteko! Ez gauza da Estatua eta borondate politikorik ez du izan. Pentsa nezake agintariak ez zutela espero akordioa lortuko genuenik; lortu genuenean ez zeudelako prest. Egin kontu: landa eremuaren erreforma da akordioa lehen puntua, bada ia urtebete eman genuen atal hori eztabaidatzen. Eta bete dadin *terratentien* tradizioa hautsi beharra dago, indar boteretsu askoren aurka jo behar da: lur-jabeak, eta sarritan berekin nahastuta dauden narkotrafikatzaileak, eta horiek in lotura duten eskualdeetako agintari politikoak.

Narkotrafikoa nola amai daiteke?

Lehendabizi hipokrisia alde batera utzita. Ahobizarrik gabe hitz egin behar genuke horretaz, gai korapilatsua delako. Oinarrian, gainera, eskaera dago eta nazioarteak ere badu, beraz, zeregina. Gauza bat argi dago: errepresioaz ez dute narkotrafikoa kenduko.

“

Ez gara inozoak. Bagenekien Habanan adostutakoa bete zezaten lortzea oso zaila izango zela, borrokan jarraitu beharko genuela. Eta horretan ari gara

Gobernua eta ELN gerrillaren arteko elkarrizketak hil-hurren dirudi, zer uste duzu gertatuko dela?

Guk ahalegin handia egin genuen ELNk bere prozesua abiatu zezan, gurearen uharan. Gurea aurrerantz zihoan eta berena abiatu ere ez zen egiten, eta bagenekien hori arazoa izango zela. Eta hala izan da. Ez zuten abagunea baliatu, eta Santosekin eta Duquerekin askoz gaitzagoa izango da, prozesuari heldu nahi ez dion agintari klasearen ordezkari direlako. Haiek nahi dutena da errendizioa, negoziazio politikoaren atea ireki ere egin gabe. Guri atea ez digute parez pare ireki, baina zirrikitu bat behintzat topatu dugu jokoan sartzeko eta aurrerantzean geuri dagokigu hori baliatzea.

Nola aldatu zaitu berriz aita izango zarela jakiteak?

Kar, kar, kar. Duela 33 urte neskato bat izan nuen, baina gerran. Bi hilabete zituenean ezagutu nuen eta gero noizbehinka baino ez nuen ikusi, harik eta hamaika urte zituenean deserriratzea tokatu zitzaion arte. Garai hartan buruzagion senideak bahitzen hasi ziren, presio modura, eta eskertua nago Espainiak alaba onartu zuelako. Beraz, jabetuko zarenez, ezin izan nuen aitatasuna ezagutu. Ez jaiotza, ez nola hazten den... Eta orain Jhoannarekin (bikotekidea) zain-zain nago. Oso hunkibera naiz eta kezka handia dut: aita ona izan nahi nuke, bikotekideari behar duen guztian lagunduz, zereginik funtsezkoena berari baitagokio. ●

Te metiste a soldao...

**TIMOCHENKO 40 URTEZ GERRAN IBILI OSTEAN
HERIOTZATIK GERTUEN BAKE GARAIOTAN IZAN DA,
OSASUN ARAZOENGATIK, HIRU UNE HISTORIKOTAN.**

"Lehendabizikoa 2015ean, Habanan: bake elkarrizketekiko batzar orokorra egiten ari ginela, bileraren erdian, hilda geratu nintzen. Eta 'hilda' egon omen nintzen 40 minutu inguru. Elektroshockak eman zizkidaten eta medikuek ere ez dakite oso ondo nola baina atera nintzen hartatik, ohe baten gainean lau egun izoztuta bezala eman eta gero. Neure onera etortzen hasi ahala bilerara itzuli behar izan nuen besteek ez baitzuten ni gabe jarraitzerik nahi izan". 2017an, armen uztea burutu eta egun gutxira, izan zuen bigarren larrialdia. "Istripu zerebroaskularra. Gorputz erdia paralizatu zitzaidan". Hirugarrena aurten izan du, martxoan. FARC alderdiaren presidentegaia zen hauteskundeetako estreinaldian, eta hautagaitza erretiratu behar izan zuen: "Bihotzeko ebakuntza egin zidaten arteriak itxi samar nituelako baina berehala jarri behar izan nuen berriz martxan. Hiruzpalau pakete erretzen nituen eguneko, geroztik erabat utzi diot".

Muturreko osasun arazo horiek izan dituenean, taldearekiko konpromisoa laxatu eta norbere ongizateari lehentasuna ematea pentsatu ote duen galdetu diogu. "Hori ez zen publiko egin baina alderdia sortzeko batzarrean barne borrokak-eta sumatu nituen eta nik ez nuen hor sartu nahi. Zuzendaritzako 111 kideak biltzekoak ginen baina 110 bildu ziren; ni Habanara joan nintzen medikutara. Eta esan nien: 'Ez nazazue presidente izendatu, beste norbait jarri ezazue eta utzidazue hiru bat hilabete neure onera etor nadin. Orduan jarriko naiz alderdiaren esanetara, zernahitarako'. Biharamunean deitu zidaten presidente izendatu nindutela esanaz! Akabo nik buruan neuzkan atsedendialdiak-eta, kar, kar, kar..." (Kantuan hasi da) 'Te metiste a soldao y ahora tienes que aprender'...

